



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2016/12/19

Enplegu anezka batean parte hartzeak "%20" handitzen ditu beharra aurkitzeko aukerak

Sara de la Rica UPV/EHUko Ekonomia katedradunak, Enplegu, Gizarte Inklusio eta Berdintasun sailak eskatuta, aurtun Ezkerraldean, Bilbon eta Enkarterrin martxan jarri diran hiru enplegu anezka pilotuak aztertu ostean lortu dan ebaluazioaren emaitzak aurkeztu ditu gaur goizean Batzar Nagusietan. Aldundiak bultzatutako Anezka programan parte hartu daben 60 pertsonak "%20" handitu ditue lanpostua aurkitzeko aukerak, itxaron zerrendan egoan eskatzaile talde batek batu dituan datuak kontuan izanda, katedradunak azaldu dauenez.

5 hilebetez egunean 4 orduz orientazino intentsiboak eskini ebezan anezken helburuen artean lankidetzan oinarritutako enplegua aurkitzea egoan, taldeko ahalik eta kide gehienarentzat, "coach" baten behar koordinatuaren bidez. Batez besteko laneratze ehunekoa "%62,69koa" izan da. Gizonen artean eragin "handia" lortu dau, %70ekoa; baina andrazkoen artean lortu dauen eragina moderatuagoa izan da. Hamarretik seik -%59,6k- enplegua lortu eben.

Azterketa horretan aldeak aurkitu dira, baita be, enplegugarritasunak, anezkea dagon lekua dala eta, lortu dauen eraginean. Bilboko taldeak, orokorrean, %76,2ko laneratze tasea lortu dauen bitartean, Ezkerraldekoak %68,2koa lortu dau, eta Enkarterrikoak %45,8koa.

Teresa Laespada Enplegu, Gizarte Inklusio eta Berdintasun diputatu andreak amaitzeko esan dauenez, enplegu anezkek eragin "positiboa" dabe lurraldean, eta "apustu arrakastatsua" dira, baina ez dira bere sailak enplegua sustetako gauzatzen dauen ekimen bakarra. Hori dala eta, une honetan zortzi anezka dagoz martxan.

AUTOENPLEGUAREN INGURUKO DATUAK

Batzorde berean, EH Bilduk egindako itaunari erantzunez, Laespadak, apirilean onartu zan lanbakoentzako, 45 urtetik gorako pertsonentzako eta gizartetik baztertuta geratzeko arriskua daukienentzako autoenpleguaren inguruko foru dekretuaren balantzea emon dau. Aurtun, Foru Aldundiak "6.442.996 euro" inbertidu ditu, "2015ean baino %56,6 gehiago", laguntzako ildo bitan. Horreetako baten helburua enpresa proiektuak sortzean eta martxan jarrean aholkularitza emotea zan; eta bestea, enpresa horreek sortzeko prozesuari diruz laguntzera egon da zuzenduta.

Aldundiko arduradunak azpimarratu dauenez, aurkeztu diran eta eskakizunak beteten ebezan eskari "guztiek" laguntzetan gauzatutako erantzuna jaso dabe, lehenengo aldiz lehiakortasunean gauzatu dan esleipenerako prozesuan. Lehenengo ildoan, "esleipena lortu daben 27 erakundeek" "900.000 euro" jaso ditue. Bigarren ildoan, Foru Aldundiak, 5.000 eurotik 15.000 eurora doazan "1.039 laguntza" esleitu ditu. Laguntza horreek "5.542.996 euro" hartu ditue.

Laespadak adierazo dauenez, datu horreek, aurreko urteetan lortutakoak baino hobeak dira. Holan, azpimarratu dauenez, 2015ean baino "335 enpresa eta 413 enplegu" gehiago lortu dira. "Bide onetik gozala" erakusten daben emaitza "onak" dirala esan dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Batzarretako taldeek emaitzak txalotu ditue, autoenplegurako partida ekonomikoak handitu egin dirala eta horreek emoteko erespideak aldatu dirala azpimarratuz, aurreko edizinoetan “iritsierako ordenan” emoten ziran eta. Hemendik aurrera, Aldundiak balorau egin beharko dau zein dan sortutako enpresen “iraupen mailea”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

NOTA DE PRENSA
19/12/2016

Participar en una lanzadera de empleo aumenta "un 20%" las probabilidades de encontrar trabajo

La catedrática de Economía de la UPV/EHU Sara de la Rica ha presentado esta mañana en las Juntas Generales a instancias del departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, los resultados de la evaluación obtenida tras chequear las tres lanzaderas de empleo puestas en marcha de forma piloto durante este año en Margen Izquierda, Bilbao y Encartaciones. Las 60 personas que han tomado parte en el programa foral Anezka han mejorado "en un 20%" las posibilidades de encontrar un puesto de trabajo en relación a los datos recogidos por un grupo de solicitantes que se encontraba en lista de espera, según ha explicado.

Entre los objetivos de las lanzaderas, en donde se realizaron labores de orientación intensiva, 4 horas al día durante 5 meses, se buscaba encontrar empleo de forma colaborativa para el máximo número de miembros del equipo, bajo el trabajo coordinado de un "coach". El porcentaje de inserción laboral media se ha situado en el "62,69%". Ha alcanzado un "fuerte" impacto en el caso de los hombres, un 70%; y una cifra más moderada entre las mujeres. Seis de cada diez -59,6%- encontraron empleo.

El análisis ha encontrado también diferencias en el impacto de la empleabilidad en función de la ubicación de la misma. Mientras que el grupo de Bilbao ha obtenido una inserción laboral en su conjunto del 76,2%, en el de Ezkerraldea se ha situado en el 68,2%, y en el de Encartaciones, en el 45,8%.

La diputada de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, Teresa Laespada, ha concluido que las lanzaderas de empleo impactan de manera "positiva" en el territorio y son "una apuesta exitosa", aunque "no la única" que desarrolla su departamento en materia de fomento del empleo, de ahí que en estos momentos haya ocho en funcionamiento.

DATOS DE AUTOEMPLEO

En la misma comisión, interpelada por el grupo EH Bildu, Laespada ha ofrecido un balance del decreto foral sobre autoempleo para personas desempleadas, mayores de 45 años y personas en riesgo de exclusión social aprobado en el mes de abril. Durante este año, la Diputación ha invertido "6.442.996 euros, un 56,6% más que en 2015", en dos líneas de ayudas diferentes, una que tenía por objeto asesorar en materia de creación y puesta en marcha de proyectos empresariales; y otra destinada a apoyar económicamente la creación de estas empresas.

La responsable foral ha destacado que "todas" las solicitudes presentadas que cumplían los requisitos han obtenido respuesta en materia de ayudas en un proceso adjudicatario elaborado por primera vez en concurrencia competitiva. En la primera línea, "27 entidades adjudicatarias" han recibido un total de "900.000 euros". En la segunda, la Institución foral ha adjudicado "1.039 ayudas" que van desde un mínimo de 5.000 euros a un máximo de 15.000. El importe de estas últimas han alcanzado los "5.542.996 euros".



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Laespada ha señalado que estos datos son mejores comparativamente a los obtenidos en años anteriores. Así ha destacado que se han creado "335 empresas y 413 empleos" más que en 2015. Son "buenos" resultados que indican que "estamos en el buen camino", ha dicho.

Los grupos junteros han aplaudido los resultados destacando que se han aumentado las partidas económicas para el autoempleo y se han cambiado los criterios para otorgarlas ya que en ediciones anteriores las ayudas se concedían "por orden de llegada". A futuro, creen que la Diputación debe valorar cuál es la "pervivencia" de las empresas creadas.